

## PLANIFIKAZIOA 3D-N

## ESZENA-ARGIZTAPEN

## PROIEKTUETARAKO:

## WYSIWYG

**ORDUTEGIA:** 9,30-14,00 eta 16,00-19,30 horas (astelehenetik ostiralera arte, 40 ordu lektibo)

### HELBURUA:

Oinarritik 3D-ko gune eszeniko bat eraikitzea, dagokion argiztapen birtuala ipiniz, WYSIWYG Perform programa erabiliz proiektuen aurkezpen ezin hobek sortzeko tresna modura. Aldi berean, programak simulagailu moduan erabiltzeko dituen ezaugarriak ikasi, eta baita DMX kotsola arruntari edo PCrako bertsioarekiko lotura ere. Ikastaroa praktiko da gehienbat.

### HARTZAILEAK:

Helburua ez da proiektu bat sortzen ikastea, baizik eta sortutako bat digitalki birsortzen ikastea. Hori dela-eta, ikastaroaren hartzaileak izan beharko dute, batipat, eskarmentua duten edo ezagupen teorikoak behintzat dituzten argiztapen teknikariak, gure lana simulatu egin beharko dugulako ordenagailu baten bidez, gure lanbidearen berezko kontzeptu eta terminoak erabiliz. Ez da beharrezkoa aurretik AutoCAD ondo erabiltzen jakitea, baina bai Windows erabiltzen jakitea eta ingelezaz ulertzea, ez baitago programaren gaztelarazko bertsiorik. Arte ederrak eta ikus-entzunezko komunikazioko ikasleak, arte eszenikoen masterreko ikasleak, antzerki eskolakoak edo L.H.koak ere.

### IKASGAI ZERRENDA:

Programaren deskripzioa  
Zirriborroak  
Liburutegiak, geruzak, koordenatuak, koordenatu galdia, venue.  
"Zero" artxiboa  
Eszenatokia  
Egitura  
Dekoratua eta tramoia  
Proiektagailuak  
Ezaugarri kontrolagarriak  
"Eseki"  
"Zuzendu"  
Objektuen ezaugarriak  
Testurak  
Design modua  
Render  
Kalkulu-orriak  
Planoak eta zerrendatuak  
Proiektu baten aurkezpena  
Live modua  
DMX kotsola eta simulagailuekin elkarrekintza

### PARTE HARTZAILE KOPURUA:

15 (Eskatutako plazak eskeinitakoak baino gehiago izatekotan, curriculumen ebaluazioaren arabera egingo da parte hartzaileen hautaketa).

### MATRIKULAREN PREZIOA:

ATAEko bazkideak, ATAEREkin elkartutako enpresek matrikulatutako lehen ikaslea eta UPV/EHUko ikasleak .....220 €  
Bestelakoak.....275 €

### MATRIKULAZIOA:

Dirua ATAERen La Caixako ondoko kontu zenbakian sartu behar da: 2100 4817 18 2100174459, izena argi jarritz, eta aurrematrikulatutako pertsonaren datuak eta curriculuma ondoko helbidera bidali:

ATAE  
1194 postakutxa. 48080-BILBAO  
Tef.: 944.014.248 / 615.731.729  
E-mail: info@atae.org

### IZENA EMATEKO EPEA:

2010eko urtarrilaren 14ra arte, edo plazak bete arte.

### MATRIKULAREN ZENBATEKOAREN ITZULKETA:

Onartuak ez diren ikaslegai guztiei matrikularen zenbateko osoa itzuliko zaie.

Antolatzaileek matrikularen zenbatekoa itzuliko dute eskaera justifikatuta dagoenean.

2019eko urtarrilaren 4tik aurrera aurkeztutako eskariek ez dute dirua itzultzeko eskubiderik izando.

### IKASLENTZAKO MATERIALA:

Ikasle bakoitzak ondoko informazioa duen CD bat jasoko du:

- Programaren eskuliburua gaztelaraz
- Ariketa praktikoa egiteko gida
- Ariketa praktikoa egiteko beharrezkoak diren irudi- eta bideo-artxiboak
- Eszena-argiztapenari buruzko oinarritzko kontzeptuen apunteak
- Wysiwyg programa (release 20)
- Programaren donglea

**EZINBESTEKOA** da ikasle bakoitzak bere ordenagailua eramatea, gutxienez 512 Mb RAM eta disko gogorrean Gb. 1 libre duela eta eramangarrian integratuta ez dagoen saga ere.

**OHAR GARRANTZITSUA:** ezin da VISTArekin lan egin.

ATAEk (Arte Eszenikoen Teknikarien Elkarte Profesionala) antolatzen du ikastaro hau UPV/EHUren laguntzarekin.

2010eko urtarrilaren 25/29

BASOKO ETXEA (Lehendakari Agirre, 81. BILBAO)

Irakaslea: Diego García Cuevas



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

